

ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEA

GAIA: 3/2015

EUSKO JAURLARITZAREN ...KO ZUZENDARI ... JAUNAK BERE EMAZTEAREN JABETZAKO GARAJE PLAZA BAT ENPRESABURU BATI SALTZEAREN INGURUAN HARTUTAKO ERABAKIA

1.- 2015eko otsailaren 6an interesdunak Etika Publikorako Batzorde honi kontsulta bat egin zion, hain zuzen ere bere emaztearen jabetzako garaje bat, ...ko autoak gordetzeko lekuan kokatutakoa, enpresaburu bati saltzearen zilegitasun etikoaren inguruan. Kontsulta horrek Batzorde honen irizpena eskatzen du, "balizko eroslearekin dudan lotura profesionala kontuan hartuta; izan ere, eroslea ...ko enpresaburua da eta ni, zuzendaria naizen aldetik, ... organo eskuduna naiz baimen- eta kudeaketa-arloko funtzioak betetzeari dagokionez"

2.- Ondoren, 2015eko otsailaren 20ko idazki batean kontsultagileak "informazio gehigarri" gisa gaineratu zuen "balizko eroslearen" intereseko "garaje-plazari" esleitu zaion salmenta-prezioa ... euro zela. Interesdunak zehazten duenez, gerta daiteke zenbateko hori ez izatea azken prezioa; izan ere azken prezioa "egiten den negoziazioaren eta Etika Publikorako Batzorde honen oniritziaren ondorio izango da, betiere eragiketaz azkenean aurrera egiten badu".

3.- Zehazki interesdunak galdetu du aipatutako higiezia saltzea Etika eta Jokabide Kodearen aurka ote dagoen nolabait.

2.- Planteatutako gaiari dagokionez, Etika Publikorako Batzordeak honako hau dio:

I. AURREKARIAK

1.- Eusko Jaurlaritzak etika publikoaren inguruan eta zehazki, bere kideen eta Autonomia Erkidegoaren sektore publikoa osatzen duten kargu politikodunen jardun etikoaren inguruan duen kezka hainbat dokumentu eta agiritan adierazi da; horien artean nabarmentzekoa da aurretik aipatutako eta 2013ko maiatzaren 28an onartutako Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko kargu publikodunen eta behin-behineko langileen Etika eta Jokabide Kodea; dokumentu hori hain zuzen ere "politikaren zentzu etikoa berreskuratzeko eta herritarrek instituzioetan izan beharreko konfiantza berrezartzeko" asmoarekin sortu zen.

2.- Horren ondoren, Eusko Legebiltzarrak kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legea onartu zuen. Lege horrek Etika eta Jokabide Kodearen eremu subjektiboa zabaltzen du, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kargu politikodunen, behin-behineko langileen eta zuzendaritzako langileen osotasunean eragiteko bokazio argi eta sendoarekin.

Lege horren II. kapituluan "kargu publikodunen jokabidearen" inguruko hainbat printzipio orokor biltzen dira; osotasunaren eta gardentasunaren inguruan (5. artikulua) antolatzen dira, hiru eremutan islatuz: banakako jokabidean (6. artikulua), kalitate instituzionalean (7. artikulua) eta herritarrekiko harremanean (8. artikulua).

3.- Printzipio horien eta Etika eta Jokabide Kodean bildutako balio, printzipio eta jokabideen jarraipena eta ebaluazioa egiteko Etika eta Jokabide Kodearen 16.3 idatz-zatian aurreikusi zen Etika Publikorako Batzorde bat eratzea, besteak beste, "kargu publikodunen eta parekatuen kontsultei zein beste edozein instantziak egindako kontsultei irtenbidea emateko", betiere Etika eta Jokabide Kodearen aplikazioari dagokionez.

II. ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEARI AURKEZTUTAKO AUZIA, IRITZIA EMAN DEZAN

1.- Kontsultagileak egindako idazkian biltzen den gertaeren zerrendan adierazten den moduan, interesdunaren emaztea familia-herentzia baten bidez eskuratutako ...ren jabea da. Beraz, izaera pribatiboa duten hainbat ondasunaren jabe da. Alabaina, interesdunaren eta bere emaztearen arteko ezkontza irabazpidezko ondasunen ezkontza-eraentza izan zenez eta gaur egun ere erregimen horren arabera denez, ondasunen ustiapenak sortutako etekinak bi ezkontideei dagozkie hein berean. Aldi berean, garaje-plazetako baten balizko eroslea ... enpresaren titularra da; kontsultagileak berak egiaztatu zuen hori, bere idazkian adierazten duen moduan ...ren izapideak egiten ikusi zuelako. Balizko eroslearen intereseko garaje-plazari esleitutako hasierako salmenta-prezioa ... euro da. Kontsultagileak zehazten duenez, gerta daiteke zenbateko hori ez izatea azken prezioa; izan ere azken prezioa "egiten den negoziazioaren ondorio izango da, betiere eragiketaz azkenean aurrera egiten badu".

2.- Kontsultagileak Eusko Jaurlaritzaren ...ko zuzendari-kargua betetzen du eta bere emaztearen jabetzako garaje-plazaren balizko eroslea ...ko enpresa operadore bateko titularra da; kontsultagileak jakin nahi duena zera da: Etika Publikorako Batzorde honen iritziz aipatutako pertsonarekin salerosketa bat gauzatzea nolabait Etika eta Jokabide Kodearen aurkakoa izango litzatekeen. Interesduna eta bere emaztea Etika Publikorako Batzorde honen irizpenaren zain daude aipatutako transakzio ekonomikoan aurrera egiteko.

III. KONTSIDERAZIOAK

1.- Interesdunaren idazkian soilik planteatzen da berak betetzen duen kargu publikoaren eta egintza bat –bere emaztearen jabetzako garaje-plaza bat saltzea– gauzatzearen artean gerta daitekeen bateraezintasuna edo interes-gatazka; egintza hori beteko balitz ere, izaera hertsiki pribatua izango luke. Etika Publikorako Batzorde hau aztertzen ari den gaia konplexuagoa da; izan ere, era batera edo bestera Etika eta Jokabide Kodeko kargu publikodunen banakako

jokabideari dagozkion printzipioak nahiz kalitate instituzionalari dagozkionak daude eraginpean hartuta.

2.- Nolanahi ere, nabarmena da Etika Publikorako Batzorde honi bidalitako idatzkian adierazten diren balio eta printzipioek (bateraezintasuna eta onestasuna; azken hori gerta daitekeen interes-gatazkari lotuta) interesdunak planteatzen duen gaiari irtenbidea emateko zeregin nagusia betetzen dutela. 2/2015 Erabakian gertatzen zen moduan (Ebazpen honetan behin eta berriz hartuko ditugu oinarriztat Erabaki horretako kontsiderazioak dagozkion kasuari dagozkionez), ez gaude karguaren berezko funtzioak betetzearekin eta zuzenean horiekin lotutako dilema etikoaren aurrean baizik eta kargu publiko baten titularrak kargu hori betetzen duen bitartean hertsiki pribatua izango litzatekeen jarduera bat gauzatzeko aukeraren inguruan sortutako zalantzaz. Beraz, zalantza ez da karguaren berezko funtzioak betetz gauzatzeko egintza publiko baten bidez kotasun etikoaren inguruan, kargu publiko baten titularrak eremu pribatuan gauzatu nahi duen egintza baten zilegitasunaren inguruan baizik.

3.- Etika eta Jokabide Kodean jarduera pribatuak garatzeko garaian kargu publikodunei dagozkien bateraezintasun-jarraibideak "Kudeaketari lotutako erantzukizunaren" printzipiotik abiatzen dira eta horren eremuan kokatzen da 14. idatz-zatiko 2. puntuan jasotzen den "arduraldi osoa eta eskusiboaren" oinarrizko araua; horren arabera "kargu publiko bat betetzen dutenek arduraldi osoa eta eskusiboa eman behar diote dagozkien funtzioak betetzeari, aplikatu beharreko legedian jasotakoaren arabera". Legedi aplikagarriara bildu beharrak Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak arautzen dituen Legearen III. kapitulura eramaten gaitu; izan ere, bertan ezartzen da Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan lan egiten duten "kargu publikodunen bateraezintasun-arabidea".

4.- Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak arautzen dituen Legearen III. kapitulua adierazpen orokor batekin hasten da (aipatu berri den Etika eta Jokabide Kodearen 14.2 idatz-zatiaren moduan), hain zuzen ere honako hau adieraziz: "kargu publikodunek arduraldi eskusiboaz beteko dituzte eginkizunak". Baina 12.1 artikuluan urrats bat gehiago egiten da eta oinarrizko arau horri funtsean ondorio logiko bat besterik ez den debeku hertsiki bat gehitu zaio: "ezin izango dute aldi berean, ez berek ezta ordezen edo ahalordetze bidez ere, ezein postu, kargu, ordezkapen, lanbide, merkataritza-jarduera, jarduera profesional edo industria-jardueratan aritu, publikoetan zein pribatuetan, norberaren kontura edo inoren kontura izan".

5.- Alabaina, nahikoa da transkribatutako arauak kargu publiko bat betetzearekin bateraezintzat jotzen dituen jardueren zerrendaren berrikuspen labur bat egitea izaera profesionala edo merkataritza- edo industria-arloko izaera duten lanbidez ari dela egiaztatzeko eta ez aldiz, eremu pribatuko edo familia-eremuko jardunez; ez bairik gabe azken horietako jarduna baita interesdunaren emaztearen jabetzako garaje-plaza baten eremu pertsonal eta partikularreko salmenta.

6.- Gainera, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak arautzen dituen Legearen 14.1 artikuluan berariaz adierazten da EAEko sektore publikoko kargu bat betetzea bateragarria dela "norberaren edo familiaren ondarea administratzearekin"; horrek atzera botatzen du dagokigun kasuan Etika eta Jokabide Kodearen aurka egiteko aukeraren hipotesia, betiere bateraezintasunen gaian "indarrean dagoen legedia" ez betetzearen ondorioz. Kontsultan aipatzen den garajearen salmenta zalantzarik gabe "norberaren edo familiaren ondarea administratzearen" kasu bat da eta legean berariaz deklaritzen da kargu publiko bat betetzearekin bateragarria dela.

7.- Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak arautzen dituen Legearen testuan kargu publiko bat betetzea eta "norberaren edo familiaren ondarea administratzea" bateragarria direnaren lege-aitorpenak hainbat muga ditu (batez ere 22. eta 23. artikuluetan jasotzen dira) baina ez dira dagokigun kasuan aplikagarriak, hurrenez hurren honako hauei dagozkienelako: kargu publikoek "Euskal Autonomia Erkidegoaren sektore publikoarekin edonolako itun edo kontraturik daukaten enpresetan" parte hartzeari edo "balore eta beste finantza-aktibo batzuk jaulkitzen dituzten merkataritza-sozietateak arautzeko, ikuskatzeko eta kontrolatzeko eskumenak dituzten karguak betetzen dituztenei, sozietate horietako baloreek edo finantza-aktiboek loturaren bat badute kargudunek berek edo haiengandik bananduta ez dauden ezkontideek". Ezinezkoa da kasu horietan biltzea kargu publiko baten familia-ondasunari dagokion garaje-plaza baten salmenta soila (eremu pertsonal eta pribatuan), kargu publiko horrek baloreak jaulkitzen dituzten merkataritza-sozietateak arautzeko, ikuskatzeko eta kontrolatzeko eskumenik ez badu.

8.- Interes-gatazka gertatzeko aukerari dagokionez, lehenik eta behin gogorarazi behar da Etika eta Jokabide Kodearen 11.2 idatz-zatiaren arabera interes-gatazka sortzen dela "kargu publikodun eta parekatuek beren postu publikoaren interesekin batera norberaren interes pribatuak, zuzeneko senideen interesak edo hirugarren pertsonekin partekatutakoak agertzen diren kontuekin zerikusia duten erabakietan esku hartzean". Antzekoa adierazten da Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak arautzen dituen Legearen 9. artikuluan, hau da interes-gatazka izango dela "lege honek obligatutako subjektuek parte hartu behar dutenean interes orokorra edo beren eginkizunari dagokion interes publikoa eta norberaren interes pribatuak edo hirugarren pertsonekin partekatutakoak edo zuzeneko senideek dituztenak aldi berean biltzen dituzten gaiekin lotutako erabakietan, lege honetan ezarritako eran".

9.- Bi testuak irakurrita erraz ondoriozta daiteke biek diotela interes-gatazka sortzen dela kargu publikodunek "erabakietan esku hartzen dutenean" (Etika eta Jokabide Kodea) edo "erabakiak hartzerakoan" esku hartzen dutenean (Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak arautzen dituen Legea) betiere honelako gaiekin lotuta: aldi berean interes orokorrak (betetzen den postuari horiek defendatu eta babestea esleitu zaionean) eta interes pribatuak (norberarenak, senideenak edo hirugarren pertsonenak) biltzen direnean. Beraz, gatazka sortzeko ezinbestekoa da honako bi baldintza hauek betetzea:

- a) Kargu publikodunak erabaki politiko edo administratibo batean esku hartzea.
- b) Erabaki hori interes publikoaren eta interes pribatuaren arteko talka gertatzen den gai bati buruzkoa izatea.

10.- Gaia horrela zehaztu ondoren, berriz esan behar da (2. puntuari ohartarazi da) dagokigun kasuan ez gaudela kargu publikodun batek bere funtzioak betetzeko hartu beharreko izaera politiko edo administratiboa duen erabaki baten aurrean.

11.- Litekeena da, kontsultagileak iraganean garajearen balizko erosleari –enpresaren titularrari– dagozkion erabaki publikoak hartu izana edo etorkizunean hartzeko beharra izatea; izan ere ... Dekretuaren 15. artikulua (...ko Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen du) agintzen duenez, ...ko Zuzendaritza –gaur egun interesdunak betetzen duena– da ...ri buruzko politika publikoak lantzen dituen Eusko Jaurlaritzako organo eskuduna eta hari dagokio, besteak beste, ... enpresen eraketa baimentzea, ematea eta hala badagokio, ... deklarazioa eta ...ren inguruko jarduerekin zerikusia duten funtzioak betetzeko behar diren dokumentu profesionalak ematea.

12.- Alabaina, hori ez da orain aurrean daukagun egoera. Interesdunak adierazten duenetik soilik ondoriozta daiteke garaje-plazaren balizko eroslea "Arabako Lurralde Bulegoan ...ko izapideak egiten" ikusi zuelako ezagutzen duela. Eta une honetan Etika Publikorako Batzordeak aztertzeko aurkeztutako dilema etikoa ez da erabaki politiko edo administratibo baten ingurukoa (premisia horri dagokio interes-gatazka, Etika eta Jokabide Kodean nahiz Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak arautzen dituen Legean zehazten den moduan) baizik eta hertsiki eremu pribatuan egiteko den salerosketa baten ingurukoa. Etorkizunean salerosketa hori egiterakoan ematen diren baldintzek kargu publikodunak esleituta dituen funtzioak behar bezala betetzea baldintzatuko duten ala ez une honetan ezin da balioetsi daukagun informazioarekin. Zuzendari gisa interesdunari esleitu zaizkion funtzioak betetzerakoan garaje-plazaren balizko eroslea eraginpean har dezakeen erabaki politiko edo administratiboa hartu beharreko egoeran dagoenean soilik ebaluatu ahal izango da une hartako inguruabarren arabera interes-gatazka gertatzen den ala ez, hots, hartu beharreko erabakiaren xedean interes publikoaren eta interes pribatuaren arteko talka gertatzen bada.

13.- Beraz, gaur egun eta dagokigun kasuan interes-gatazka bat sortzeko behar diren bi baldintzak falta dira: kargu publikodunak erabaki politiko edo administratibo batean esku hartze zuzena izatea (1) eta erabakia interes publiko eta pribatuak biltzen dituen gai batekin lotuta egotea (2).

14.- Denboraldi bat igaro ondoren interesdunak enpresaren titularrari buruzko erabaki publikoren bat hartu beharko baluke eta pertsona hori kontsultaren xede den garaje-plazaren balizko eroslea balitz ere, horrek ez luke automatikoki interes-gatazkarik sorraraziko. Interes-gatazka sortzea edo ez sortzea hainbat faktoreren arabera izango litzateke, besteak beste, garajearen salmenta gauzatzeko baldintzen arabera eta hala badagokio, baldintza horiek goi-karguak hartu beharreko ebazpenetan edo haren irudi publikoan izan zezaketen eraginaren

araberakoa. Alabaina, hori guztia soilik *in concreto* ebaluatuko litzateke benetan gertatutako inguruabarretan oinarrituta, eta hori une honetan ezin da burutu.

15.- Osotasunaren balioari zegokion 6/2013 Erabakian adierazi genuen salatutako kargudunak Etika eta Jokabide Kodearen aurka egin zuela, aste batzuk lehenago modu erabakigarrian parte hartu zuelako "sektore publikoan hasi aurretik lehen lan egiten zuen enpresari edo sozietateari kontratu bat esleitzeko" erabakia hartzean "soilik zortzi hilabete igarota hura utzi zuenetik". Kontratazio-espedita -orduan adierazi bezala- akatsgabea izan arren, eta kasu zehatz hartan benetako interes-gatazkarik aurkitu ez bazen ere, ez-betetzea gertatu zen Etika eta Jokabide Kodearen helburuak honako hauek direlako: batetik, "baztertzera erabaki edo ebazpen bat hura hartzen duen pertsonaren [...] mesederakoa nahiz edozein motatako interes partikularrek eragindakoa izan daitekeelako edozein susmo edo zalantza" (5.2.4 idatz-zatia), eta bestetik, saihestea "pertsona edo erakunde publiko edo pribatu batzuen alde edo faboritismo-nahiak eraginda jokatu duelako edozein susmo piztu dezakeen ezer" (6. idatz-zatia). Nahikoa da goi-kargudun edo parekatuaren jardunbideak arrazoizko zalantza bat sortzea edo sortu ahal izatea haren onestetasun, inpartzialtasun, osotasun edo objektibotasunari buruz, kodearen 5.2.4 eta 11.3 idatz-zatiek hizpide dituzten kautelazko edo badaezpadako mekanismoak abian jartzeko: parte hartzeari uko egitea edo, bestela, alde aurretik Etika Publikorako Batzorde honi kontsultatzea".

16.- Gainera, Etika eta Jokabide Kodean integritate-balioa "faboritismo-susmorik" eragin gabe jarduteko beharrezkin hertsiki lotuta agertzen da, "postu instituzionala edo karguaren ondoriozko pribilegioak zuzenean edo zeharka abantailak lortzeko norberarentzat, hala nola abantailak edo desabantailak lortzeko edozein pertsona edo erakunderentzat" eta beren erabakiak edo irizpideak beste enplegatu edo kargu publikodun batzuek betez gero, ez eraginik izatea irizpide edo erabaki horiek interes publikotik aldentzeko eta enplegatu edo kargu publikodun horiek "haietatik zuzenean edo zeharka etekina atera dezaten beraiantzat edo beste batzuentzat" (6. idatz-zatiko 1., 2. eta 3. puntuak).

Gaur egun daukagun informazioarekin ezin da aurreratu dagokigun kasuan aipatzen den garaje-plazaren salmenta hipotetikoak kontsultagilearen integritatean izan dezakeen eraginaren inguruko iritzirik. Kargu publikodun baten integritatea probatzen da kargudun horrek esleitu zaizkion eskumenen esparruan zenbait erabaki administratibo hartzen dituenean, baina ez da horrelakoa kontsultagileak une honetan daukan egoera.

17.- Kasu honetan eraginpean har daitekeen Etika eta Jokabide Kodearen beste printzipio bat Eredugarritasunari buruzkoa da; horri dagokionez 5.2.6 idatz-zatian honako hau adierazten da: "kargu publikodun eta parekatuak, bereziki gobernu- edo erakunde-egituretan postu nagusiren bat betetzen badu, erakundearen ispilua dira, herritarrei bezala erakunde publiko horretan diharduten gainerako pertsonen ere erakundearen irudia itzultzen diena, eta, horregatik, ez du ezer egin behar edo egin gabe utzi behar horrek kalte egiten badio, txikiena izanda ere,

Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta Instituzionalaren ospe, duintasun eta irudi instituzionalari, herritarrek sistema instituzionalean duten konfiantza ez gutxitzeko".

18.- Etika eta Jokabide Kodeak eredugarritasunaren printzipioaren esparruan agintzen eta debekatzen dituen jokabideak kargu publikodunak bere funtzioak betetzerakoan duen portaerari ere badagozkio, salbu eta dagokigun kasuan eraginik ez duen 5. puntuan xedatutakoa; alabaina, aurretik adierazi den moduan, hori ez da kontsulta honen xedea. Dena den, eredugarritasunaren printzipioak eskatzen dituelako bete edo saihestu beharreko portaerak zehazteko hainbat berariazko debeku daude, eta ondoren adierazten ditugu:

- a) Kargu organikoak zein kudeaketa-karguak betetzea fundazio, elkarte nahiz bestelako entitateetan, haien helburuak eta funtzioen xede diren interes publikoak aurkakoak izatea litekeena baldin bada edota interesen arteko gatazka sor badaiteke.
- b) Zuzenean zein zeharka nolabaiteko ordainsari edo konpentsazio ekonomikoa dakarten irratiko hizketaldietan edo telebistako eztabaidetan parte hartzea.
- c) Edozein hedabidetako eztabaidetan eta gogoeta-prozesuetan parte hartzea Gobernuaren berezko jarreratik aldentzen den jarrera agertuz, salbu eta garrantzirik gabeko gaiak baldin badira edo iritzi horiek pertsonalak direla, eta horrenbestez, Gobernuaren politikarekin zerikusirik ez dutela adierazten bada.
- d) Gobernuaren edo kargu publikodun nagusiaren baimenik gabe hedabideetan parte hartzea eduki neutralei buruzko elkarrizketa zein erreportajeetan izan ezik.
- e) Betetzen duten karguaren ondorioz liburuetan, aldizkarietan, egunkarietan eta beste edozein hedabidetan ekarpenak egiteagatik ordainketak onartzea, baldin eta ekarpen horiek funtzioak betetzeari lotuta badaude.

19.- Ikus daitekeenez, Etika eta Jokabide Kodeak Eredugarritasunaren printzipioaren esparruan berariaz debekatzen dituen jokabideen zerrendan ez dago "norberaren edo familiaren ondarea administratzean" parte hartzeari buruzko inongo aipamenik; aldiz, Erabaki honen 6. eta 7. puntuetan ikusi dugunez, jarduera hori kargu publiko bat betetzearekin bateragarritzat jotzen da aurretik aipatutako Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak arautzen dituen Legearen 14.1 a) artikuluan.

20.- Kontsultagileak Etika Publikorako Batzorde honetara otsailaren 20an helarazi zuen "informazio gehigarrian" bereziki honako hau azpimarratzen zuen: "balizko erosleak interesa duen garaje-plazaren hasierako salmenta-prezioa ... € da" eta ondokoa gaineratu: "gerta daiteke zenbateko hori ez izatea azken prezioa; izan ere azken prezioa egiten den negoziazioaren eta zuk ordezkatzun organoaren oniritziaren ondorio izango da, betiere eragiketaz azkenean aurrera egiten badu".

Une honetan Etika Publikorako Batzorde honek ez dauka beharrezkoa litzatekeen informaziorik aipatutako zenbatekoa merkatuaren baldintzetara egokitzen den edo aldiz, zenbateko hori

neurritz kanpokoa den eta konpentsazio ekonomiko baten susmoa eragin dezakeen ebaluatzeko, hain zuzen ere iraganean, gaur egun edo etorkizunean garajearen balizko eroslearen interesen aldeko erabaki politiko edo administratiboak hartzeari lotutakoa. Hori horrela bada "informazio gehigarrian" aipatzen den zenbatekoaren inguruan arrazoi gehiagorekin izango da egin daitekeen negoziazioaren emaitzazko zenbatekoaren inguruan (oraindik dudazkoa eta ezezaguna). Ondorioz, gaur egun ezin dugu ezer esan dagokigun salerosketak interesdunaren Integritatean eta Eredugarritasunean orain edo etorkizunean izan dezakeen eraginaren inguruan. Salmenta gauzatzen bada eta kontsultagileak etorkizunean eroslearen interesen eremuan eragina izan dezaketen erabaki politiko edo administratiboak hartu behar baditu, une horretan balioetsiko da transakzioa merkatuaren baldintza hertsien arabera gauzatu den (horrek susmo guztiak aldentuko lituzke) edo aldiz, kargu publikodun orok bete beharreko Integritate eta Eredugarritasun Printzipioekin bateraezinak diren baldintzetan gauzatu den.

21.- Hori guztia kontuan hartuta Etika Publikorako Batzorde honek modu bakarra ikusten du interesdunak zuzendari gisa esleitu zaizkion funtzioak betetzeko inpartzialtasuna eta independentzia konprometi dezakeen eta/edo karguaren jardunean izan behar duen inpartzialtasun- eta independentzia-irudia konprometi dezakeen balizko moldaketa ezkuturen baten susmoak guztiz baztertzeko. Azkenean kontsultako xede den garajearen salmenta gauzatzen bada eta garajea kontsultan aipatzen den enpresaburuak erosten badu, dagokigun kasuko Integritatearen eta Eredugarritasunaren balioak hobekien zaindu ditzakeen neurria (higienikoena) honako hau da: enpresaburuak sustatzen dituen espedienteetan edo haren interes-eremuan zuzenean edo zeharka eragina izan dezaketenetan interesdunak ez hartzea inongo erabaki politiko edo administratiborik.

Hori guztia aintzat hartuta, hauxe da Etika Publikorako Batzorde honek aho batez hartutako

ERABAKIA:

Lehena.- Berez, interesdunaren (Eusko Jaurlaritzaren ...ko zuzendaria) emaztearen jabetzako garaje-plaza bat ... enpresaren titularra den erosleari saltzea ez dago Etika eta Jokabide Kodearen aurka, betiere salmenta merkatuaren baldintza hertsien arabera gauzatzen bada.

Bigarrena.- Etika Publikorako Batzorde honek ez dauka egiaztatze-erreferentziarik hain puntuala eta askotarikoa den higiezinaren merkatuaren bilakaeraren berri modu zehatzean izateko; beraz, interesdunak zuzendari gisa esleitu zaizkion funtzioak betetzeko inpartzialtasuna eta independentzia konprometi dezakeen eta/edo karguaren jardunean izan behar duen inpartzialtasun- eta independentzia-irudia konprometi dezakeen balizko moldaketa ezkuturen baten susmoak guztiz baztertzeko, eta azkenean kontsultako xede den

garajearen salmenta gauzatzen bada eta garajea kontsultan aipatzen den enpresaburuak erosten badu, enpresaburuak sustatzen dituen espedienteetan edo haren interes-eremuan zuzenean edo zeharka eragina izan dezaketenetan interesdunak ez du inongo erabaki politiko edo administratiborik hartu beharko, eta, aldiz, nagusi hierarkikoaren esku utzi beharko ditu bere ardurak, edo, bestela, egoera horietako ezeinetan ez dagoen saileko edo erakundeko beste kargu publikodunen baten esku (Etika eta Jokabide Kodearen 11. idatz-zatia *in fine*).



Josu Iñaki Erkoreka Gervasio
Etika Publikorako Batzordearen presidentea

Vitoria-Gasteiz, 2015eko martxoaren 25a